

Dientes de Luna

Dientes de Luna taldea Gernikan sortu zen 2008an, eta Iparragirre Rock Elkarteko kide dira. 2012an argitaratu zuten "¡Esto sí que no me lo esperaba!" EP-a, gero iraupen luzeko bi disko, "Más vale tarde" 2015ean eta "Utopista" 2018an. Boskote modura funtzionatu izan dute, baina egun sei dira taldean. Euskera eta gaztelania erabiltzen dute. Dientes de Luna taldearen laugarren diskoa 2018ko urria eta abendua bitartean grabatu, nahastu eta masterizatu du Jagoba Ormaetxeak Bilboko TAOM estudioetan. Ekoizpena: Dientes de Luna eta Jagoba Ormaetxea. "Orratz galduak" abestiaren letra Koldo Gezuraga eta Dientes de Luna taldearen artean egindakoa da. "Terapia" abestia 2018ko maiatzan egin zen "Gu be zuek gara" ekimenerako Onintza Enbeita eta Dientes de Luna taldearen hitzekin. Taldearekin gozatuko dute Gatibu, Foo Fighters, Dinero, Kuraia edo Ed Sheeran bezalako taldeak gustuko dituztenek.

Dientes de Luna taldearen "Atmosfera" diskoaren rocka trinkoa da, oinarri sendo-sendokoa, eta, batzuetan, honek eraman gaitzake pentsatzera hard doinuek, 90 eta 2000ko hamarkadetakako kaleko rockak, rock alternatibo amerikarrak, indie-ak irabaziko dutela abestiaren mamia (eta noski egingo dutela), baina abestiaren melodiek pop inguruetara hurbilduko du askotan lehenago aipatutako sendotasuna. Gizakiek dituzten zalantzak, beldurrak eta pentsamenduak islatu nahi ditu taldeak. Poesiak metafora bilakatuta eta, baita ere, metaforak poesiaz blaiturik. Istorio eta bizipen pertsonalak kontatzen dituzte. Dientes de Luna taldearen pop ukituek berezkoa dute kolpe indartsua. Haize lakar eta laztantsuak batzen ditu taldeak kantuetan, eta jendea dantzarako prestatuko du. Atmosfera kantua sinfonikoaren eta progresiboaren uztarketa da, instrumental horren izpirituan dago Dientes de Luna taldearen sena, senaren indarra, soinuaren senaren gorputza abestien kartografia bilakaturik.

ORRATZ GALDUAK

Askotan uste dugu denbora dela gure arazoak konpontzeko sendagirik onena, baina ahaztu egiten dugu denbora dela (edo bizitza bera) preso egiten gaituen kaiolarik erraldoiena. Euskal Herrian guretzako erreferente izan den talde bat geneukan buruan, eta batez ere kantu hau sortzerakoan: Kuraia. Indarra eta abiadura, melodiak alde batera utzi barik. Leloetan, ordea, ukitu modernoago sumatzen da bonbo markatuek dantza kutsua ematen baitiote.

DESCALZA

Aukerak edo trenak behin pasatzen direla diogu. Zer egingo zenuke tren hori hartzeko? Behartuta gaude igotzera? Kasu batzuetan, beharbada, gu gara trena hartu nahi ez dugunak. Gustuko dugun formula jarraitu dugu; oinarrizko rocka eta armonia alaiak. Aimarren ahotsak, La Fuga taldearen kaleko rocka gogorarazten digu. Musikan, aldiz, Gatibu taldearen tankera usaindu daiteke.

MAJARA

Herralde, arraza, kultura, ohitura... asko daude munduan, eta denek merezi dute errespetua. Berdintasunaren aldeko abesti bat da. Riff nagusia Rage Against the Machine eta antzeko rock talde gogorretatik dator; hala ere, lelo pop zale itsaskor eta soinu exotikoak ere nabari dira.

ROPA SUCIA

Ez direna erakusten saiatzen diren pertsonei zuzendutako abestia da.

Barrearen atzean beti dago malkoa (eta kontrara). Zergatik ez izan garen modukoak? Rock kantautoreen tankerako abesti lasaia da, baina gaur egungo produkzio eta konponketekin apaindua.

TERAPIA

Bizitza bat eta bakarra dugu, eta momentu txarrenetan ere topera bizi behar dugu. AEBetako pop-punka da nagusi abesti honetan. Blink eta antzeko punk-rock alaia beti dabil geure buruetan.

BERANDU DA

Bizitzan aurrera goazen heinean, gauzak aldatuz doaz. Zer da, benetan, merezi duena? Zeren falta igarri dugu? Non daude egon behar direnak? Eta garrantzitsuena, non nago eta zer naiz ni? Oso gustuko ditugu rock baladak. Ken Zazpi auzokideak dira eta antzeko itxurako errezeta nabari da abesti honetan. Orkestrazioek dotoretu eta lagundu diote.

ATMOSFERA

Instrumentala da. "Berandu da" baladaren jarraipen naturala. Aurreko abestiaren akordeekin lotzen da eremu ezezagunetaraino helduz. Rock progresiboa, ohiko akordeez gaindi Dientes de Luna taldearen musikan formula konplexuek ere tokia badutela argi geratzen da. Eskola-zaharreko Genesis edo eskola-berriko Muse datozkigu burura.

Aimar Cid: ahotsa eta gitarrak

Amaiur Zugadi: ahotsak

Unai Bilbao: gitarrak

Gorka Etxeberria: gitarrak

Joseba Mugartegi: bateria

Lander Egia: baxua

ritxi aizpuru + dientes de luna (2019ko otsailaren 27a)

